

Herrera

Tinbal hotsak pilotalekuan

Burrumbada perkusio taldea duela bi urte sortu zen. Musikari hauek egoitza bila dabiltza, baina, bien bitartean, Herrerako frontoian aritzen dira ostiral gauero.

Lierni Ezeiza

Burrumbada gelditu gabe ari da 2001etik hona, beraien musika eta erritmo dantzagarriak lau haizeetara zabaltzen. Gazte hauek aurtan hasi dira Herrerako pilotalekuan entseatzeko, ostiralero, 23.00etatik aurrera. Dena dela, leku hau aukeratu aurretik, Donostiako beste zenbait txokotan elkartu izan dira. Hasieran, Kursaal atzealdeko terra-

zan jotzen zuten. Taldea hazi ahala, ordea, Zurriolako hondartzako harkaitzen ondora joan ziren. 2002an taldea zertxobait sakabanatu zen, baina aurtan berriro ere indartsu hasi dira tinbalak astintzen, esan bezala, Herreran. Udaran, gainera, jairik jai ibili dira.

Herrerako pilotalekuan gustura daude musikariok, baina lokal propioa izan nahi dute. Udalariko egoitza eskatu ahal

izateko, Burrumbada taldea elkarte bilakatu da. Bazkideen kuotak, ekarpenak, merchandising salmentak eta beste hainbat baliabide dituzte, gaur egun, diru iturri.

Musika eta festa

40 bat gaztek osatzen dute Burrumbada perkusio elkarte. Gehien-gehienak euskal herri-tarrak dira, baina badira espainiarrak ere. Perkusio zale-

tasuna ezezik, beste zaletasun batzuk ere badituzte taldekideek. Izan ere, beraien

artearen harreman ona sortzea eta festarako eskaintza alternatiboa zabaltzea dituzte helburu. Horretarako, ekintza ugari egiten dituzte urte osoan: eskulanak, dantzak, malabareak, graffitiak, futbola, saskibaloia, txokolata jateak, barre algarak...

Eider Ormazabal taldekideak adierazi digunez, mota guztietako jendea ongi etorria da Burrumbada-ren entseuetan: "Taldea jende guztiarentzat dago zabalik; gure entseuetara datozenek ondo pasatzeko aukera izango dute. Auzotarrek ere oso ondo hartu gaituzte, eta jende asko etortzen zaigu ostiralero bisitan".



Burrumbada elkarte bilakatu berri da

LEHIAKETA

Hamar sarrera ditugu "Betizu izar artean" filma ikusteko. Emaldia Lugaritz kultur etxean izango da, hilaren 29an, larunbata, 17.00etan. Sarrerak eskuratzeko, 943467181 telefono zenbakira deitu behar da astelehenean, hilak 24, 12.00etatik aurrera.

Joan den asteko irabazleak:

**Edurne Sarasola / Eñaut Beloki / Xila Pilström /
Karmele Olabarrieta / Valentina Perez**

